

Mila katemaila euskal preso- en eskubideei lotuta

Giza katea egin zen atzo Bilbon hiru laurdenak bete dituzten preso- en alde

Itziar Uriarte / Bilbo

Bizkaiko herri plataformek deituta mila metroko giza kate bat egin zuten Bilbon espetxe zigorraren 3/4 beteta dituzten 120 presoak aske utz ditzaten eskatzeko. «Preso- en katea txikitzen lagunduko duen katea» eskutan, mila pertsona inguruk Arenaletik eta Plaza Zirkularre- rainoko bidea egin zuten «Espainiako justiziaren 3/4 gezurra» dela aldarrikatuz.

BURDINEZKO katea, preso- en eskubideekiko elkartasu- na eta batasuna adierazi nahi zuen katea, izan zen atzoko ekitaldian parte hartu zute- nen lokarria. Mila metroko elkartasunak Gran Viako tra- fikoa moztu gabe Arenala eta Plaza Eliptikoa lotu zituen errepide erditik joanez. Plaza horretan, Espainiako Gober- nuak Bizkaian duen ordezkari- tzaordearen aurrean, justi- zia espainiarrak euskal preso politikoen eskubideak zapal- tzen dituela salatu zuten Biz- kaiko 16 herri ekimenek antolatuta atzo arratsaldean giza katean bildutako lagu- nek.

«Zer gertatzen da euskal preso politikoe- kin zigorraren hiru laurdenak bete eta gero askatasuna lortu ez deza- ten?» galdetu, eta gero hizla- riak berak argitu zuen zalan- tza: «tratamendu batzordeen informe ezkorrak eta gradu- en progresiorik eza daude oina- rrian». Plataformetako orde- zkariek beraiek itaundu zuten nola den posible 19 urtez beti lehen gradu- en dauden preso- ak egotea.

Bestalde, preso- en eskubi- deak jagotea espetxe zain- tza- ko epaileei badagokie ere, epaileen arteko jokabidea ezberdin dela ohartarazi zuten. Iruñeko epaileak, fis- kalaren errekurtsua egon arren, hiru preso- en askata- sunerako eskubideari lehen- tasuna eman ziela nabar- mendu zuten. Bitartean bes- te epaile batzuren jarreraren ondorioz, baldintzapeko askatasuna eskuratzeko bal- dintzak beteta dituzten 120 presok kartzelan dirautela nabarmendu zuten. Preso horietako 45 bizkaitarrak dira.

Giza katea egin eta ekital- diari amaiera emateko Fidel Argatxa zigorra beteta aske geratu berri den preso ohiak argi utzi zuen euskal preso- en kasuan ez direla zigorra «aski beteta» irteten, «guztiz beteta» baizik. Preso ohiak oroitarazi zuen Guadalajarako kartzel- an egon diren beste preso batzuek askatzeko (Barrio- nuevo eta Verari buruz ari zen) justiziak beste era bate- ko arintasuna eta prestuta- suna izan zuela.



MIKEL MARTINEZ

Zigorraren hiru laurdenak beteta dituzten preso- en askatasuna eskatzeko atzo Bilbon eginiko giza katea.

Jose Luis Ansola, 'Pello Zaharra', aske geratu da

Erredakzioa / Bilbo

JOSE LUIS ANSOLA, *Pello Zaharra* ezizenaz ezaguna- goa, aske geratu zen ostiral gauean Valdemoroko kar- tzelatik (Madril). Frantzia- konfinatua, Baionako kate- dralean entzerratu zen erre- fuxiatuek Euskal Herrian bizitzeko eskubidea dutela aldarrikatzeko. Hendaian atxilotua izan ondoren espainiaratu egin zuten, eta haren geroztik behin behi- neko espetxeratua zegoen.

Ekainaren 9an Espainiako Entzute- gi Nazionalak epai- tu egin zuen eta 1980an Ispasterren sei guardia zibi- len kontra izandako atenta- tu baterako informazioa eskaini izana leporatu zio- ten. Fiskalak 174 urteko zigorra eskatu zuen. Epai- rik ez dagoen arren, Ansola aske geratu zen.

Ansola Elgoibarko zinego- tzi aukeratu zuten joan den igandean EH plataformaren ordezkari.